

INUITAK

Munduaren iparraldean, munduko tokirik hotzenetan bizi dira

Alaskako, Kanadako eta Groenlandiako iparraldea da eskimalen edo inuiten lurraldea.

Eskimal izena oso ezaguna da, baina haiek ez dute erabiltzen, iraingarria delako. Eskimal hitzak “haragi gordin jalea” esan nahi du. Horregatik ez dute izen hori onartzen. Haiek, inuit “herria edo jendea” izena gustuko dute.

Inuitak milaka urtean bizi izan dira Artikoan eta izotzean bizimodua jasateko gaitasun handia eta ezaugarri bereziak dituzte:

- Neurritz, txikiak dira,
- Gorputz sendoak eta indartsuak dituzte, gorputzeko beroa hobeto mantentzeko,
- Beso eta hanka motzak,
- Ile beltza, azal iluna eta begi urratuak dituzte,
- Betileak ere sendoak dira, begiak izotzean islatzen den argitasunetik babesteko.
- Hala ere, batzuetan, eguzki izpietatik babesteko zulo estua eta txikia duen marfilezko karatula moduko bat erabiltzen dute.



1. Munduko zein lekutan bizi dira Inuitak?

Ekialdean.

Hegoaldean.

Iparraldean.

Mendebaldean.

2. Zergatik ez zaie gustatzen eskimalak deitzea?

Hitz itsusia delako.

Minduta sentitzen direlako.

Beldurra eragiten dielako.

Haragirik jaten ez dutelako.

3. Nolakoak dira inuitak?

Altuak eta argalak.

Altuak eta sendoak.

Baxuak eta argalak.

Baxuak eta sendoak.

4. Zein da testuaren ideia garrantzitsuena?

Inuitak Alaskan bizi dira.

Gizakia edozein tokitan bizi daiteke.

Poloan Inuitak bakarrik bizi dira.

Inuitak poloan bizitzeko gorputza egokituta daukate.

5. Testu hau zertarako idatzi dute?

Istorio bat kontatzeko.

Irakurleak dibertitzeko.

Informazioa emateko.

Idazlearen iritzia emateko